

Estrella Morente eta "Y los sueños ... cine son" errezitaldia izango dira protagonistak Poetak Maiatzean ekimenean, Santa Marian


Bertsoak eta musika izango dira berriro Katedralean, Gasteizko Nazioarteko Poesia Jaialdiaren XIII. edizioan, maiatzaren 5etik 30era bitartean. Hilaren hasieran, Estrella Morente izango dugu gure artean, eta amaiera aldera, berriz, "Y los sueños ... cine son" errezitaldia.

Granadako Estrella Morente kantariak emanaldia eskainiko du maiatzaren 5ean, astelehena, 19:00etan, "Mis poemas y un cante" lehen poema-liburua zuzenean aurkezteko. Bertan, 38 poema biltzen ditu guztira, eta artistak literaturarekiko beti izan duen maitasuna islatzen du. Liburu diskoa 2021ean argitaratu zen, Gabriel artistaren hitzaurrea du, Pedro Enriquez poetaren epilogoia, eta bere ama Aurora Carbonellen lanekin ilustratuta dago, tartean Rosario amonaren argazki batzuekin. Beti errimatzen ez duten bertsoak, bikaintasuna edo txaloa bilatzen ez dutenak. Berak beste asmo bat du, barren-barreneko premia batetik sortu dira; horixe da haien balioa.

Y los sueños ... cine son

Musika eta poesiaren errezitaldia hilaren 24an iritsiko da, eta zinema ametsen mundurako zubi gisa aztertuko du. Esperientzia liluragarria eta dimentsio anitzekoa izango da. Ekitaldi honetan, hitzak eta melodiak elkartu egingo dira zazpigarren artearen magia giza adimenaren paisaia onirikoekin lotzen dituen zentzumen-bidaia batera publikoa eramateko. Zinema gai nagusi moduan aukeratzeak, gizartearen ispilu eta istorioen kontalari gisa betetzen duen rola omentzeaz gain, emozioak, hausnarketak eta fantasiak gogora ekartzeko duen gaitasuna sakontzen du.

Modu horretan, errezitaldia amestutakoaren eta benetakoaren arteko topagune bihurtuko da, gure bizitza markatu zuen film baten nostalgiaren eta irudiek esan ezin dutena adieraztea lortzen duen poesiaren artekoa.



ESTRELLA MORENTE:
 "Mis poemas y un cante"
 Maiatzak 5, astelehena, 19:00etan
Y LOS SUEÑOS ... CINE SON
 Gurasoak-San Viator abesbatza Jose Laconcepción eta Carmen Vicente: poetak Sara Mauleón; diziplina anitzeko sortzailea Zuzendaritza: Jesus Merin
Maiatzak 24, larunbata, 19:30ean
 Sarrera doan edukiera bete arte



Informazio gehiago
www.poetasenmayo.com
 web gunean eta sare sozialetan



BISITA KARAKTERIZATUA PILARES DOKTOREAREKIN

Jarduera hau 5 eta 8 urte arteko haurrentzat da; hain zuzen ere, katedral bat eta, bereziki, Santa Maria nola zaintzen den jakiteko aukera izango dute. Taldearekin batera izango da Pilares doktorea, ibilbidearen edukia modu atsegin eta aldi berean ludikoan aitzaltzeaz arduratuko baita.

Jarduera honen asmoa da familia-turismoa bultzatzea. **Apirilaren 23an, 12:00etan, eta apirilaren 25ean, 17:00etan** egin ahal izango da, eta 75 minutukoa izango da. Bisitan, adingabeek bakarrik egon beharko dute, baina helduek beste bisita bat egin ahal izango dute aldi berean. **Prezioa 6 eurokoa da.**

Jarduera honen eta beste batzuen erreserbak katedralaren web gunean (www.catedralvitoria.eus) edo **945 255135 telefonora** deituta egin daitezke.



JUAN IGNACIO LASAGABASTER ETA AGUSTIN AZKARATE, 'SER DE ÁLAVA' 2025EKO SARIAK

Santa Maria Katedrala birgaitzeko lanak bultzatu dituztenek sari hau jaso dute, Araban nabarmendu diren pertsonak, erakundeak, kolektiboak edo entitateak urtero saritzen dituenak.

"Katedralean izandako esperientzia benetako abentura bat izan da", Juan Ignacio Lasagabasterrek esan zuen hunkituta Europa Jauregian, galaren egoitzan. "Hasieran pentsatu genuen zerbait koherentea egin behar genuela, hirian aztarna

izango zuena, besterik gabe zaharberitze bat ez izatea, baizik eta zerbait parte-hartzailea, gizartea bera inplikatu eta enpatizatuko zuena, horrela, esku-hartze hori eta etorkizunekoak normalizat, ohikotzat hartzeko. Bada, badirudi ibilbide arrakastatsua izan dela". Eszenatokian, eta baita ere saria emozio handiz jasoaz, Agustin Azkaratek nabarmendu zuen saria jaso dutela Santa Maria birgaitzeko lanetan urte hauetan zehar lanean aritu diren pertsona guztien ordezkarri gisa.

Premios SER de Álava Sarien XII. edizioan, martxoan, Lasagasterren eta Azkarateren lana saritu da; lehena arkitektoa eta Arabako Aldundiko

Ondare Saileko burua, eta bigarrena UPV/EHUko Arkeologia katedraduna, "Arabako eskola sortu duen eta Gasteizko Santa Maria Katedralarekin sagaratu den ondarearen birgaitzea bultzatzeagatik". Biek ondarea berreskuratzeko modu aitzindaria bultzatu dute, Tobillaseko San Roman elizan aurrekariak izandakoa. Katedrala zaharberitzean ari zirela sortu zen, eta, gaur egun, Gatz Harana bezalako proiektuetan aplikatzen da.

Ekitaldian, honako hauek ere jaso zuten saria: Indira Martinez de Illarduya aktibista gazteak, hezkuntza-sistema inklusiboarengatik; En Tol Sarmiento taldeak; Tessy Ebosele atleta olinpikoak; eta 'Ametza' elkarteak, San Prudentzioko lehen Danborrada egin zuenak bere urrezko ezteietan.

ASTE SANTUA SANTA MARIAN

Munduko Gurutze Bidea apirilaren 12an, larunbata, Meza Krismala apirilaren 16an, asteazkena, eta BERPIZKUNDEKO Alborada hilaren 20an, igandea, izango dira aurten Katedralean, Pasio Astean.

Gasteizen hainbat ekitaldi erlijioso izango dira Aste Santuan, horietako hainbat Santa Marian. **Apirilaren 12an**, larunbata, Santa Maria parrokian hasiko da **Munduko XX. Gurutze Bidea**, katedralean amaituko dena. Berakah programaren baitan eta "Entzun eta

lagundu" lelopean, hogeita hamar bat kolektiboren ordezkarriak (komunitate migratzaileak, Kofradiak, elkarteak, etab.) Santa Maria Plazan bilduko dira, eta Pasioaren irakurketak, otoitzak, hausnarketak eta abestiak egingo dituzte.

Asteazken Santuan, apirilaren 16an, katedralean egingo da ohiko Krisma Meza; bertan, olioak bedeinkatu eta Gasteizko Elizbarrutiko apaiz guztiek beren promesak berrituko dituzte.

Ospakizuna 11:00etan hasiko da, eta Mons. Juan Carlos Elizalde izango da horren buru.

Azkenik, Pazko Igandean, **apirilaren 20an, 11:00etan, BERPIZKUNDEKO Alborada** hasiko da. Aurreko urteetan bezala, Andre Maria Zuriaren Txirinbil de los Auroros taldeko txistulariek eta musikariek Segurako Alborada joko dute Santa Maria Katedralako dorreko balkoitik.

ALBANO CARRISI ABESLARI ETA AKTOREA IZAN GENUEN BISITAN MARTXOAREN 28AN

Italiar artista ospetsuak handik egun batera Buesa Arenan egin zen Amusufesten II. edizioan parte hartu zuen. Ekitaldi handi horretan, dirua bildu zuten Aztivate Foundationek Kenyan eta Arabako Alzheimer eta beste dementzia batzuen Elkarteak (AFARABA) egiten duten lana bultzatzeko. Al Banok interes handia erakutsi zuen Santa Mariara egindako **bisita gidatuan**, eta ez zuen zalantzarik izan gure taldearekin argazkia ateratzeko.

